

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO (ZTF-FCT) GRADUKO IKASKETAK LEKUALDATZEKO ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

UPV/EHUk ikasturte bakoitzerako onartzen du Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Araudia (aurrerantzean, GIGA), eta bertan arautzen dira unibertsitatean sartzeko mekanismoak, baita UPV/EHUUn jarraitzeko, ikasketak lekuz aldatzeko eta ikasketa desberdinak aldi berean egiteko prozedurak ere.

Ikastegiko araudi honetan jasota daude graduko beste ikasketa batzuk hasi dituzten ikasleak ZTF-FCTko graduetan sartzeari buruzko hainbat alderdi, GIGAn zehaztu gabe daudenak (7. artikulua).

1. artikulua – Lekualdatzeen muga.

GIGAn ezarritako baldintzak betetzen dituzten lekualdatzeak, gehienez ere, graduko plaza mugaren % 10 izango dira ikasturte eta gradu bakoitzean.

2. artikulua - Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitzetik lekualdatzea.

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitzetik edozein gradu indibidualetara (Fisika edo Ingeniaritza Elektronikoa) aldatzen diren ikasleak oso kasu bereziak dira; izan ere, ez dira egiazko lekualdaketak eta, ondorioz, bestelako tratamendu bat ezartzen zaie, gradu bikoitzen araudian jasota dagoena.

2.1 Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitzean jarraitzeko baldintza espezifikoak betetzen ez dituzten ikasleek (Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza lortzeko Araudiaren 11.1 artikulua, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 14ko saioan onartutakoa) Fisikako Gradura edo Ingeniaritza Elektronikoko Gradura aldatzeko eskaera egin ahal izango dute.

Kasu horiek ez dira zenbatuko 1. artikuluan adierazi den lekualdatzeen % 10eko mugan.

2.2 Era berean, Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza borondatez uztea erabakitzen duten ikasleek aukera izango dute Fisikako Gradura edo Ingeniaritza Elektronikoko Gradura aldatzeko.

Kasu horiek ez dira zenbatuko 1. artikuluan adierazi den lekualdatzeen % 10eko mugan.

2.3 Izen eta kode bera duten irakasgaietan aldeztu aurretik erabili diren deialdiak espediente berrian jasota agertuko dira, baina, edozelan ere, horrelakoetan, ikasleak bermatuta izango ditu bi deialdi gutxienez.

3. artikulua – Lekualdatzeko eskaera onartzea (1. fasea).

Ikastegiak eskaera tramita dezan, beherago zehazten diren baldintzak bete beharko dira. Hauetako bat betetzen ez bada, eskaera atzera botako da.

- 3.1 Berrikusteko prozeduratik kanpo geratuko dira epetik kanpo aurkezten diren eskaera guztiak.
- 3.2 UPV/EHUⁿ jarraitzeko erregimena edo haren baliokidea agortu duten eskatzaileen kasuan, UPV/EHUⁿ gai hori arautzen duen araudia aplikatuko da.
- 3.3 Plaza muga gainditu duten graduen kasuan, edo ohiko deialdian matrikulazio aldia amaitu aurretik onartuen zerrendan oraindik ikasleak dituzten graduatan (prion 9), jatorriko ikasketetan lehen maila osorik gainditu duten ikasleen eskaerak soilik onartuko dira, edo jatorrizko erakunde akademikoan 60 ECTS kreditu edo horren baliokidea gainditu dutenenak (kreditu, ordu edo irakasgaitan).
- 3.4 Adierazitako ikasketak atzerriko unibertsitateetan egin direnean, 3.3 artikuluan gain, UPV/EHUⁿ kasu horietarako berariaz sortutako araudia aplikatuko da, zeinak xedatzen baitu ikasleak xede graduan baliokidetu/aitortu daitezkeen 30 ECTS kreditu izan behar dituela.
Atzerrian amaitutako ikasketa homologatu gabeen kasuan (adibidez, 180 ECTSko gradua), gradu batean onartzeko araudi honetan deskribatutako prozedura aplikatuko da, bai onarpenean (3. artikulua, 1. fasea), bai antolamenduan (4. artikulua, 2. fasea).
- 3.5 Gradu eta Graduondoko Ikasketen Gestiorako Araudiaren arabera (I. kapituluko 7.3.d artikulua), 971/2007 Errege Dekretuan definitutako goi mailako eta errendimendu handiko kirolarien eskaerak lehentasunez aztertu eta onartuko dira, eta 2. fasera igaroko dira (4. artikulua).
- 3.6 Honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:
 - NANaren edo pasaportearen fotokopia.
 - Hautaprobetako txartela edo beste herrialde batzuetako baliokidea, jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.
 - Partzialki egindako unibertsitate ikasketen ziurtagiri akademiko zehatza (jatorrizkoa edo fotokopia erkatua). Urrats hau ez da beharrezkoa izango jatorrizko ikasketak UPV/EHUⁿ egin diren kasuetan.
 - Irakasgaietako programa, ikasketak atzerrian egin diren kasuetan.
 - Ikasketa planak, ikasketak atzerrian egin diren kasuetan.
 - Ikasketak atzerrian egin diren kasuetan, indarreko legeriaren arabera, agintaritzak eskudunek eman eta bide diplomatikoen bitartez legezkotutako agiri ofizialak aurkeztu beharko dira, ingelesera edo euskara/gaztelaniara itzulita. (Hagako Hitzarmena, 1961eko urriaren 5ekoa)
 - Eskaera bera edo inguruabarrak justifikatzeko aurkeztu nahi den beste edozein dokumentu.

4. artikulua – Onartutako lekualdatze eskaeren antolaketa eta hautatzeko irizpideak (2. fasea).

3. artikuluan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten izangaiak ezin izango dira pasa onartutako eskaerak antolatzeko 2. fasera.

3. artikulua aplikatu ondoren, honako hau izango da onartutako eskaerak antolatzeko prozedura:

- 4.1 Gradu eta Graduondoko Ikasketen Gestiorako Araudiaren arabera (I. kapituluko 7.3.d. artikulua), 971/2007 Errege Dekretuan definitutako goi mailako eta

errendimendu handiko kirolarien eskaerek lehentasuna izango dute kasuan kasuko ikasketetan lekualdaketarako dauden plazak esleitzean. Ezarritako epetik kanpo, esleitu gabeko plaza hutsak geratu direnean baino ez dira onartuko era honetako lekualdaketak.

- 4.2 3. artikuluko baldintzak betetzen dituzten eskaerak lehentasun irizpide batzuen arabera baloratuko dira, lehia dagoen kasu guztietan (eskaera baliokideen eskaintako plazak baino gehiago direnean).

Ikastegiak lehentasun nota (LN) kalkulatu du baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordenatzeko. Horretarako, formula hau aplikatu du:

$$LN = GON/14 + P * (BN/10 + F)$$

Laburdurak:

GON: graduaren sartzeko onarpen nota da (14tik), jatorriko graduaren sartu zenekoa.

P: jatorrizko graduaren kidetasun-faktorea da, lekualdaketara eskatu den graduarekiko. I. eranskinean, UPV/EHUren jatorrizko graduetatik aplikatu beharreko ZTF-FCT mailetarako kidetasun-faktorearen balioak aurkezten dira. Eranskin hori ikasturte bakoitzean berrikusiko da.

BN: jatorriko titulazioan gainditutako irakasgaietan lortutako batez besteko nota da (10etik), ECTS edo kreditu baliokideen kopuruaren arabera haztatuta.

F=NECTS/NGuzECTS hauen arteko zatiketa da: jatorriko titulazioan gainditu diren irakasgai guztietako ECTS edo kreditu baliokideen batura (NECTS), zati jatorriko titulazioko ECTS edo kreditu baliokideen guztizkoa (ECTSGuz).

- 4.3 Ikastegiak eskaerak ordenatuko ditu, LN handienetik txikienera (bi dezimalekin), eta lekualdaketarako eskaintako plazak lehentasunen ordena horren arabera esleituko dira, gehieneko eskaintza bete arte.

AZKEN XEDAPENA. OINARRIAK INDARREAN JARTZEA

Araudi hau ZTF-FCTko Ikastegiko Batzarrak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA – JATORRIKO GRADUEN ETA ZTF-FCTko GRADUEN ARTEKO KIDETASUN FAKTOREEN TAULA

Jarraian ageri den taulan jasota daude 4. artikuluko formularen aplikatzen diren kidesun faktoreak (P). Horien bidez, 1. fasean ZTF-FCTko graduertako (xede graduak) onartu diren lekualdaketa eskaerak antolatzen dira, jatorriko gradua UPV/EHUkoa denean. Jatorriko gradua taula honetan jasota ez badago, ZTF-FCTren Baliozkotze Batzordeak erabakiko du P kidesun faktorearen balioa.

AFINITATE FAKTOREA	BIO	BQBM	BT	FIS	FIE	IE	GEO	MAT	QUIM	IQ
Biologiako Gradua	1,2	1,2	1,2	0,6	0,6	0,6	1	0,8	1	0,8
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	1,2	1,2	1,2	0,6	0,6	0,6	0,6	0,8	1	0,8
Bioteknologiako gradua	1,2	1,2	1,2	0,6	0,6	0,6	0,6	0,8	1	1,2
Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	1	1	1	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	1	1
Ingurumen Zientzietako Gradua	1,2	1	1	0,6	0,6	0,6	1,2	0,8	1,2	1
Farmaziako Gradua	1	1,2	1	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	1,2	1
Fisikako Gradua	0,6	0,6	0,6	1,2	1,2	1,2	0,8	1	0,8	0,8
Ingeniaritza Elektronikako Gradua	0,6	0,6	0,6	1,2	1,2	1,2	0,8	1	0,8	1
Geologiako Gradua	1	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	1,2	0,8	1	1
Grado en Matemáticas	0,8	0,8	0,8	1	1	1	0,8	1,2	0,8	0,8
Arkitektura Teknikoko Gradua	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	0,8
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
Erizaintzako Gradua	1	1	1	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	0,8	0,6
Medikuntzako Gradua	1	1,2	1	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	0,8	0,6
Odontologiako Gradua	1	1,2	1	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	0,8	0,6
Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	0,8	0,6	1	0,8	0,8	0,8	1	0,8	1	1,2
Ingeniaritza Zibileko Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	1	0,8	0,8	0,8
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	1	0,8	0,8	0,8
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	1	0,8	0,8	0,8	1	0,8	1	1,2
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	1	0,8	0,8	0,8	0,8
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	1	0,8	0,8	0,8	0,8
Informatika Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	1	0,8	0,8	0,8	0,8
Itsasketako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	1	0,6	0,6	0,6
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	0,6	0,6	0,6	1	1	1	0,8	0,8	0,8	0,8
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	0,6	0,6
Kimikako Gradua	1	1	1	0,8	0,8	0,8	1	0,8	1,2	1,2
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	0,8	0,8	1,2	0,8	0,8	1	1	0,8	1,2	1,2
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	0,8	0,8	0,8	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	1	0,8
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	1	0,8	0,8	1
Fisioterapiako Gradua	0,8	0,8	0,8	0,6	0,6	0,6	0,8	0,6	0,6	0,6
Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,6	0,6
Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	1
Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,8	0,8	1	0,8	0,8	0,8	0,8
Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	1,2	0,8	0,8	0,8
BESTE BATZUK	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4